

**SEPTORRINOPLASTIA EGITEKO BAIMEN INFORMATUA**  
**CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA SEPTORRINOPLASTIA****A. IDENTIFIKAZIOA:**MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:  
..... Data: .....**B. INFORMAZIOA:**

Septorrinoplastia edo errinoseptoplastia esaten zaio sudurraren forma eta funtzioa batera zuzentzeko helburua duen teknika kirurgikoari. Hala, teknika horren bidez, sudur-piramidearen kanpoko forma eta sudur-barrunbea konpontzen dira, jarduera kirurgiko berean.

Interbentzioa egiteko, anestesia orokorra erabiltzen da. Ebaki batzuk egiten dira sudurraren barruan. Deformazio-motaren eta deformazioen kokapenaren arabera, baliteke beste ebaki bat egin behar izatea kolumela deritzon egiturari; kolumela sudur-puntaren eta goiko ezpainaren artean dago eta bi barrunbeak bereizten ditu. Batzuetan, material sintetikoakoa xafla bat edo gehiago jarri behar izaten dira sudur-trenkadan egun batzuk, josturaz. Gehienez ere hiru astez erabili behar izaten dira xafla horiek; oso gutxitan gomendatzen da denbora gehiagoz erabiltzea.

Ebakuntza kirurgikoaren ondoren, ferula txiki bat jartzen da sudurraren gainean, eta sudurra buxatu egiten da; denbora-tartea alda daiteke pazienteen artean. Buxadurak molestiak eragiten ditu; adibidez, buruko mina edo pisutasuna, belarriak itxita daudelako sententzia, mastekatzeko arazoak eta eztarria lehortzea. Horiek guztiak tratamendu sintomatikoarekin arintzen dira. Zenbaitetan, ahozko tratamendu antibiotikoa ere hartu behar izaten da buxadurak egiten direnean, infekziorik ez sortzeko sudurrean eta sinuetan.

Hona hemen espero diren onurak: sudur-piramidearen kanpoko itxura, sudurraren iragazkortasuna eta sudurraren aireztatze-gutxiegitasunak eragindako sintomak hobetzea.

**C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:**

- Hemorragia txikia sudurrean edo ahoan. Ezohikoa da hemorragia handia izatea; halakoetan, baliteke beste buxadura bat jarri behar izatea sudurrean, edo kirurgia-aldea berriz aztertzea anestesia orokorra jarrita.
- Infekzioa ebakuntza egin den barrunbean edo sudur-hobia inguratzen duten barrunbeetan (sinuetan). Ezohikoa da, baina gerta liteke aurpegiko ehunak infektatzea.
- Batzuetan, ondorioa zefaleak izan daitezke, intentsitate eta kokaleku aldakorrekoak.
- Zulaketak sudur-trenkadan; ohikoagoak dira interbentzioa berriz egiten denean sudur-trenkadan.

**A. IDENTIFICACIÓN:**NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:  
..... Fecha: .....**B. INFORMACIÓN:**

Llamamos septorrinoplastia o rinoseptoplastia a la técnica quirúrgica que tiene como finalidad la corrección conjunta de la forma y de la función de la nariz. Por ello, se asocia la reparación de la forma externa de la pirámide nasal con la remodelación del interior de la fosa nasal, en un mismo acto quirúrgico.

La intervención se realiza bajo anestesia general, a través de una serie de incisiones que se practican en el interior de la nariz. Según el tipo y localización de las deformidades puede ser preciso realizar una incisión suplementaria en la llamada columela, la estructura ubicada entre la punta nasal y el labio superior y que separa una fosa de la otra. En ocasiones, puede resultar necesaria la colocación de una o varias láminas de material sintético abrazando el tabique nasal, sujetas mediante una sutura, durante unos días. Estas láminas deben retirarse tras un lapso de tiempo que raramente supera las 3 semanas.

Tras la intervención quirúrgica, se coloca una pequeña férula sobre el dorso de la nariz y se suele realizar un taponamiento nasal que se mantendrá durante un período de tiempo variable. El taponamiento ocasionará molestias, como dolor o pesadez de cabeza, sensación de taponamiento de oídos, molestias al masticar y sequedad de garganta, que se atenúan con tratamiento sintomático. En ocasiones es necesario administrar a antibiotioterapia oral para evitar infecciones nasosinusales.

Los beneficios esperados son la mejoría del aspecto externo de la pirámide nasal, así como de la permeabilidad nasal y de los síntomas que esta insuficiencia ventilatoria nasal puede producir.

**C. RIESGOS Y COMPLICACIONES:**

- Pequeña hemorragia nasal o bucal. Excepcionalmente abundante, puede requerir la colocación de un nuevo taponamiento nasal y/o revisión de la zona quirúrgica bajo anestesia general.
- Infección de la cavidad operatoria o que rodean la fosa nasal (senos). Excepcionalmente infección en los tejidos de la cara.
- Ocasionalmente, como secuela, cefaleas de intensidad y localización variables.
- Perforaciones del tabique nasal, más frecuentes en reintervenciones del tabique nasal.

- Bridak sudur-barrunbeko pareten artean (sinekiak); baliteke sinekiak ebaki behar izatea.
- Asaldurak usaimenean, begietako konplikazioak (adibidez, ikusmen bikoitza aldi batez, betazaleko edema eta aurpegiko hematoma).
- Sudurreko elementu osteokartilaginosoak lekuz aldatzea operazio ondokoan, orbaintzea anomaloa izateagatik edo ustekabeen traumatismoa gertatzeagatik.
- Bestalde, ebakuntzan aldatu, lehortu edo ezarri diren hezur- edo kartilago-zatiek irregulartasunak sor ditzakete sudur gainean. Sudurra miatzean, irregulartasun horiek ukitu edo ikusi ere egin daitezke batzuetan. Azala fina eta elastikoa denean, gehiago nabaritzen dira irregulartasun horiek.
- Zenbaitetan (kasuen % 20tik baino gutxiago), baliteke beste interbentzio kirurgiko bat egin behar izatea, arrazoi hauengatik: sudurreko buxadurak bere horretan jarraitzea, gaizki orbaintzea, berreraikitze zatiak lekuz aldatzea, sudurreko traumatismoa operazio ondokoan edo deformazioak sudur-piramidean.
- Sudur-piramidearen gainaldea hondoratzea edo tolestea zati kartilaginosoan, orbaintzean nahasmendua gertatzeagatik.
- Asaldurak eremu horretako sentikortasunean.

Horiez guztiez gain, interbentzio kirurgiko guztiek izaten dituzten konplikazioak eta anestesia orokorrari lotutakoak ere badaude, erabiltzen bada.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

#### **D. ESAN IEZAGUZU:**

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergiak, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez.

#### **E. ARRISKU PERTSONALAK:**

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek (diabetesa, arteria-hipertentsioa, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikiak eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

#### **F. ORDEZKO AUKERAK:**

Ez da ezagutzen eraginkortasuna frogatu den beste prozedurarik.

- Formación de bridas entre las paredes de la fosa nasal (sinequias), que pueden requerir su sección.
- Alteraciones de la olfacción, complicaciones oculares, como visión doble temporal, edema de los párpados y hematomas faciales.
- Desplazamiento de elementos osteocartilaginosos de la nariz en el postoperatorio, debido a cicatrización anómala o traumatismo accidental.
- Las porciones de hueso o de cartílago que durante la intervención han sido remodelados, resecaos o implantados pueden dar lugar a irregularidades del dorso nasal, pueden ser palpables o incluso visibles. En pieles finas y elásticas estas irregularidades pueden ser más notorias.
- Por debajo del 20% puede requerirse una nueva intervención quirúrgica, por persistir obstrucción nasal, mala cicatrización, desplazamiento de los fragmentos de reconstrucción, traumatismo nasal en el postoperatorio, deformidades de la pirámide nasal.
- Hundimiento o plegamiento del dorso de la pirámide nasal en su porción cartilaginosa por trastorno de cicatrización.
- Alteraciones de la sensibilidad de la zona.

Además de lo referido, existe el riesgo de complicaciones propias de toda intervención quirúrgica y las relacionadas, si es el caso, con la anestesia general.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

#### **D. AVÍSEÑOS:**

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

#### **E. RIESGOS PERSONALIZADOS:**

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia,...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

#### **F. ALTERNATIVAS:**

No se conocen otros procedimientos de contrastada eficacia.

**DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN**

**FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.**

**Pazientea/ El Paciente****Pazientearen izen-abizenak**Nombre, dos apellidos  
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Medikua/El/La Médico****Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.**Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a  
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Ordezkarria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad****Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna**Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal  
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal****Adierazitako prozedurapean EZ JARTZEAREN irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.**Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento  
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha